| Estimados padres y madres: | Guraso estimatuok: |
| --- | --- |
| Desde el grupo de Deusto FamilyPsych de la Universidad de Deusto y a través de vuestra asociación, nos ponemos en contacto con vosotros para presentaros el proyecto de investigación en el que estamos trabajando actualmente y para invitaros a participar y colaborar con nosotros. | Deustuko Unibertsitateko Deusto FamilyPsych taldearen eta zure elkartearen bitartez jartzen gara zuekin harremanetan, une honetan jorratzen ari garen ikerketa proiektua aurkezteko eta parte hartu eta gurekin batera lan egin dezazuen gonbidatzeko. |
| Nuestro estudio se centra en la exploración de las posibles dificultades o necesidades que podéis presentar en la comunicación de orígenes con vuestros hijos e hijas adoptados, para finalmente poder diseñar futuros talleres y actividades que ayuden a trabajar todos los aspectos relacionados con la comunicación de orígenes y que sirvan para orientar y apoyar a las familias adoptivas. | Aita-amaordeok zeuon seme-alabaordeekin zein jatorri duten azaltzeko izan ditzakezuen zailtasunak eta beharrizanak aztertzea da gure ikerketaren ardatza. Horren bidez, etorkizunean, jatorriaren berri emateko orduan, adopziozko familiei laguntzeko eta orientazioa emateko lantegiak eta jarduerak diseinatuko lirateke. |
| A continuación os explicaremos en qué consistiría vuestra participación y algunas cuestiones que consideramos importantes. | Jarraian azalduko dizuegu zein izango den zuen parte hartzea, baita beste jakingarri batzuk ere, |
| - *¿En qué va a consistir mi participación en este estudio?* | - *Zein izango da nire parte-hartzea ikerketan?* |
| Vuestra participación implicaría formar parte de un grupo de discusión entre una hora y media y dos horas de duración en el que os reuniríais con varios padres y madres y dos profesionales de nuestro | Ordu eta erdi eta bi ordu bitarteko iraupena izango lukeen eztabaidako talde batean elkartuko zinatekete beste guraso batzuekin eta ikertaldeko bi profesionalekin. |
| | - *Zein gai jorratuko dira taldean?* |
| | Hainbat gai jorratuko dira taldean: zelako beldurrak, estualdiak eta zailtasunak bizi |

equipo.

- *¿Qué temas se tratarán en el grupo?*

En este grupo de discusión se van a tratar temas como los miedos, ansiedades y dificultades que pudisteis tener en la revelación de los orígenes y en las comunicaciones que se han dado posteriormente entre vosotros y vuestros hijos e hijas.

- *¿Qué va a pasar con la información que contemos en el grupo de discusión?*

Es importante para nosotros que las personas que estáis implicadas seáis las que nos cuenten vuestras experiencias para que los profesionales podamos intervenir y apoyaros según vuestras necesidades. Lo que se cuente en el grupo se utilizará de manera confidencial para concluir cuáles son las principales ansiedades que los padres y madres experimentan. Estas conclusiones se publicarán y serán difundidas entre organizaciones de adopción y en la comunidad científica. Ninguna persona que haya participado en el grupo será identificada ni se relacionará ningún dato con las personas participantes.

- *¿Qué ocurre si no quiero participar?*

izan zenituzten seme-alabei euren jatorriaren berri ematean eta ondoren zuen eta zuen seme-alabekiko komunikazioan zelakoak izan dituzuen.

- *Zer gertatuko da eztabaidako taldean kontatzen dugun informazioarekin?*

Garrantzizkoa da guretzat egoera hori bizi izan duzuenok zuen esperientzien berri ematea, profesionalok esku hartzeko eta inplikatuta dauden pertsonei laguntzeko, beharrizanen arabera. Taldean kontatzen dena konfidentzialtasunez erabiliko da, gurasoek bizi dituzten zailtasunik nagusienak zeintzuk diren ondorioztatzeko. Ondorioak argitaratu eta zabaldu egingo dira adopzioko erakundeetan eta elkarte zientifikoan.

Taldean parte hartu duen pertsonarik ez da identifikatuko eta ez da inolako daturik parte hartzaileekin lotuko.

- *Zer gertatuko da parte hartu nahi ez badut?*

Ikerketa honetan parte hartzea erabat borondatezkoa da. Ez du inolako eraginik izango elkartetik jasotzen dituzuen zerbitzu eta laguntzetan. Era berean, galderaren bati erantzun nahi ez badiozue, egin dezakezue edo taldea bertan behera utzi, egoki deritzozuenean.

| | |
|---|---|
| La participación en este grupo es totalmente voluntaria. Esto no va a tener ningún efecto en los servicios y apoyos que recibís de vuestra asociación. De igual forma, si hay alguna pregunta a la que no queréis contestar, podréis hacerlo o abandonar el grupo en el momento que así lo consideréis.<br>- *¿Cómo me puedo poner en contacto con las investigadoras?*<br>Pertenecemos al grupo de Deusto FamilyPsych de la Universidad de Deusto. Podéis contactar con nosotras en cualquier momento para cualquier duda que tengáis sobre el estudio o vuestra participación. | - *Zelan jar naiteke harremanetan ikertzaileekin?*<br>Deustuko Unibertsitateko Deusto FamilyPsych taldekoak gara. Edozein momentutan jar zaitezkete gurekin harremanetan, ikerketaz edo partaidetzaz galderarik edo zalantzarik baduzue argitzeko. |